

KANALAK

Jaladame enpresaren kanalak anitzak dira: guk garrantzia gehien emango diogun kanala ikastetxeak eta beraien langileak dira. Ikastetxearen bitartez haurren familiari gure zerbitzuaren berri emango diogu alde batetik. Horretarako, eskoletan gure zerbitzuen inguruko informazio-orriak utziko ditugu ikasle bakoitzak etxera eramateko.

Bestalde, urtero hezitzaileei zuzenduta egingo ditugun hitzaldietan, haurrek gure beharra noiz izan dezaketen identifikatzeko jarraibide batzuk adieraziko dizkiegu langileei. Horrek ere bezeroak erakarriko ditu gure zerbitzu bila.

Horretaz gain, Bilbo eta inguruko herrietan gure zerbitzuen inguruko publizitatea banatuko dugu etxeetan, eta ez hori bakarrik, kaleetan ere informazio orriak paretatan ipiniko ditugu.

Bistan da gaur egun sare sozialek eta internetek duten indarra informazioa jendeari helarazteko orduan. Beraz, bide horiek ere erabiliko ditugu gure zerbitzua bistaratzeko. Ildo beretik, webgune bat sortuko dugu gure enpresari buruzko informazioa erakusteko. Era berean, gaur egun dugun egoerarekin, Covid-19a dela eta, agian bezeroren batekin bideo dei bidez elkartu gaitzke. Gure ustetan ez da aurrez- aurreko elkarrizketa baten parekoa baina momenturen baten agian aukera bat izan daiteke.

Gure webguneko atal garrantzitsu bat galderen atala izango da; nahi duenak galdera bat egin diezaguke eta guk erantzun bat emango dugu. Honek jendeari gu ezagutzeko aukera emango dio, eta guk eskaintzen duguna zertan datzan ezagutu dezakete.